

# Euskararen isobarak

*Hamasei gezur handi eta koda bat*

Pako Aristi



erein

EUSKARAREN ISOBARAK  
Hamasei gezur handi eta koda bat

---

Obra honen edozein erreprodukzio modu, banaketa, komunikazio publiko edo aldaketa egiteko, nahitaezkoa da jabeen baimena, legeak aurrez ikusitako salbuespenezko kasuetan salbu. Obra honen zatiren bat fotokopiatu edo eskaneatu nahi baduzu, jo CEDROa (Centro Español de Derechos Reprográficos, [www.conlicencia.com](http://www.conlicencia.com); 91 702 19 70 / 93 272 04 47).

*1. argitalpena: 2014ko urrian*

Azala eta liburuaren diseinua:

Iturri

Maketazioa:

Erein

© Pako Aristi

© EREIN. Donostia 2014

ISBN: 978-84-9746-929-6

L. G.: SS-1211/2014

EREIN Argitaletxea. Tolosa Etorbidea 107

20018 Donostia

T 943 218 300 F 943 218 311

e-mail: [erein@erein.eus](mailto:erein@erein.eus)

[www.erein.eus](http://www.erein.eus)

Inprimatzailea: Itxaropena, S. A.

Araba kalea, 45. 20800 Zarautz

T 943 835 008 F 943 130 822

e-mail: [itxaropena@itxaropena.net](mailto:itxaropena@itxaropena.net)

[www.itxaropena.net](http://www.itxaropena.net)

# EUSKARAREN ISOBARAK

Hamasei gezur handi eta koda bat

---

Pako Aristi



erein



## HIZKUNTZAREN EGUNSENTIA

Hizkuntzarena da gizakiak, bere burua definitzeko unean, asmatu duen mito nagusia. Diseinurik aurreratuen, perfektuena, aurreikuspen guztiak gainditu zituen. Bere burua harrokeriaz eta hantustez bete duen asmakizuna, sinesten baitu bera dela bere kideekin hitz egiteko gauza den izaki bakarra. Antropozentrismo horren arabera, animaliek ez ei dute hitz egiten euren espeziekoekin, zientzia han-hemenka eskaintzen ari zaigun adibideen argira astakeria itzela dirudien uste baldarra.

Kaioek, untziek, otsoek edo inurriek ez dutela hitz egiten esateko, lehendabizi kaio, untxi, otso edo inurri izan beharko genukeelako.

Hizkuntzarekin batera asmatu zuen gizakiak gezurra ere, bi plano oso ezberdinetan jokatzeko aukera eskaintzen duen asmakizun komunikatiboa: gauza bat da gertatu dena, eta bestea gertatuaz kontatzen duguna. Alegia, errealitatea, eta beraz egiten den kontakizuna. Historian zehar gatazka izugarriak gertatu dira bai bata bai bestea kontrolatzeko. Herrien arteko menderakuntza eta esplotazioen historian biak ala biak izan dira garrantzitsuak, ezinbestez elkarri lotuak egon baitira okupazio militarrek eta haiei buruz historia liburu edota agiri publikoetan egiten zen kronika.

Armak, ekintzak kontrolatzeko; baina gero hitzak, saraskiaren oroimena leuntzeko. Denborarekin hitzak erabiltzea aski izanen da manupekoen jarrera bideratzeko, baina armak beti egonen dira atzeguardiako biltegietan.

Errealitatearen kontrola ez da denboran luzatzen ahal propaganda tresnak eskuratu gabe. Hauekin ezartzen ditu

menderatzaileak bere aldeko mezuak, herri menderatuan jendeak begi onez ikus ditzan okupazioaren onurak.

Gizarteak bere buruaz daukan irudiaren hezurdura dira mezuok, eta monopolio hori beste modu batera erakutsi nahi duten kondairak antzu dirateke propaganda botere priorik gabe. Folklore bihurtzen dira, galera baten oroimen. Herri irabazleak gezur-sortzaile dira, galtzaileak irenslle. Arau-ezarle, lehenengoak; konplexu-iturri, bigarrenak.

Patri Urkizuk *Balada zaharrez* liburuan kontatzen duenez, herri guztiek izan dute, antzinatik, iragan denboren ospea azpimarratu nahia, horretarako lekuko eta testu faltsuak asmatuz. Leku urrun edo galduren batean aurkitutako eskuizkribua ohiko leloa bilakatu zen. Hiri guztiek, beren arbaso sortzaileen artean, Troiako Gerlan aritutako borrokalari ospetsuren bat bilatzen omen zuten.

Jan Van Garp-ek, *Goropio* ezizeneko historiagile holandarrak, liburu bat argitaratu zuen 1569an *Origines antwerpiannae* deitua, frogatzeko holandarrak Uholde Handiaren aurretik bizitako herrialde batzuen oinordekoak zirela, eta beren hizkuntza, silaba bateko hitzez betea zegoenez, Adanen hizkuntza izan zela.

Hau frogatzeko ipuin miragarririk ere asmatu zuen; Psametiko erregearen esperientua, adibidez. Honek itxi omen zituen bi haur gela batean, bat ere hizkuntzarik irakatsi gabe. Baina denbora iritsitakoan, haurrak bere kasa hizketan hasi omen ziren, “*bekos*” esaten biak. “*Bekos!*”, “*Bekos!*”. Alegia, ogia eskatzen zuten frasieraz, frogatuz frisiarrak zirela munduko lehen arraza, eta ez egiptoarrak; frisia zela gizakiak asmatutako lehen hizkuntza.

Ipuinaren baitan gaudela, irudikatu ditzaket bi haur euskaldun, gela batean, inoren hitz-hotsik entzun gabe. Zer

esango lukete estreinakoz? Irudika ditzaket haurrak “pa!” esaten, “pa!” eskatzen, ez “*pan*” (ogia), patxoa baizik, mu-uak dakarren amodio-lurrina baita haurraren elikadura nagusia bere bizitzako lehen urteetan.

Euskararen sorrera da mito nagusietako bat munduko hizkuntzalarien artean, baina ez gure kontakizunetik sortua; kasu honetan, errealitatea bera da ipuina idatzi duena. Duela hamarkada batzuek 7.000 urteko antzinakotasuna eman bazitzaion, ikerketa berriak urrunago doaz etengabe. Lehen, konplexu edo gaizki ulertutako umiltasun batek euskarak 7.000 urte baino gehiago dituela esatea galarratzen bazuen ere, gero eta ugariagoak dira gure hizkuntza duela 15.000 urte Ekain, Altamira edo Lascauxen bizi izan zirenek mintzo zuten hizkuntzaren oinordeko zuzena dela baieztatzen duten historialari eta linguistak. Mark Pagel, Reading Unibertsitateko biologia ebolutiboko irakaslea ausartu zen esaten, 2011n, Eduardo Punseten *Redes* programan, euskarak 20.000 urte dituela. Bideoa Youtubeng dago, 87.242 bisita izan ditu eta 531 erantzun.

Zer ez dugu ikusi hainbeste urtean! Izan ditugu hitz egiten ez zekiten goroldioen istorioak, Joxe Arratibel ataundarraren belarrira iritsi zirenak amona gozoren baten ahotik.

Izan dugu trikua, poeta batek (Bernardo Atxagak, kasu honetan) egin dezakeen eraldaketa imajinariorik liluragarriena gauzatuz, gure hizkuntzaren isla poetiko bihurtu zuena, neguaren amaieran bere arantzazko ezkutu salbu sentiturik errepidera ateratzen zena, “barraskilo, zizare, zomorro, armiarma, igel, non ezkutatzen zarete?” galdetuz, automobilen argiez ohartu gabe.

Mikel Irizarrek, Topaguneako Presidente zelarik, *El Diario Vascon* kontatzen zuen bere lagun batek *Prestige*



petrolio-ontziaren irudia jartzen zuela euskararen irudi gisa, galdetuz “nola nahi dugu jendea ontzi horretara igo-tzea?”. Eta nola sedukzioaren inguruan gabiltzan hausnarka (petrolio bezain ideia toxikoa, bestalde), Irizarrek zioen la-gunak erakartzeko orduan askoz hobe litzatekeela euskara belaontzi xarmant baten gisan aurkeztea: “Eta horrela da, hain zuzen ere. Jakina Bali-n bagaude ez digula askotarako balioko, baina hemen askoz hurbilago dauden beste mundu batzuetarako ateak irekitzen ditu, oso interesgarriak direnak”. Hain interesgarriak badira, zergatik Euskal Herriko bi herenek ez dute belaontzian nabigatu nahi?

Belaontzia: irudi aski argigarria, subkontzientzia so-zialaren endekapena agerian uzten duena. Belaontzia: gu-gandik kanpo dagoen tramankulu bat, zeinetara igo edo ez aukeran jartzen zaigun. Hori al da hizkuntza baten defi-nizio serioa? Baltikoko errepubliketan independentziaren kontsultetan bozka emateko exijitu zituzten hiru baldin-tzetako bat datorkit gogora: Bertako hizkuntza jakitea! Horra hizkuntzaren definizio borobila: gure nortasunaren ernamuin, hezurdura eta osagarri! Derrigorrezko eta ezin-besteko! Bi irudi, bat nagusitasunetik marraztua, bestea mendekotasunetik zirriborratua!

Zergatik ari da euskara seriotzat dauzkagun mundue-tatik desagertzen gero eta azkarrago, *boy scouten* festa mo-duko jargoi katramilatsua bilakatzeko?

Nora doa euskara, Europa osoan ezagutua eta erres-petatua zen Nafarroako erresumaren hizkuntza izatetik, Pa-txi Baztarririk 2013ko uztailean “Euskara EAEn: gaita-suna, erabilera eta iritzia” ikerketaren aurkezpenean aitortu zuenez, bizpahiru belaunaldiren ondoren desagertzeko egoeran, edota, gutxienez, marjinazio arriskuan egoteko?

Behatokiaren 2012ko artxiboetan sekula baino kexa gehiago jaso izateko?

Nora doa euskara, ipuinetatik Hizkuntza Politikako sailburutza bat sortu zioten garaiotara iritsi denean?

Nora doa euskara, *Lingua Navarrorum* izatetik, gaur euskara ez dakienari erraztasun guztiak jartzen zaizkion Euskal Herri honetan?

## BATAIOAREN ORDUA

Gurea bezalako herriek, konkista militar bati jarraitu dion mende askotako kolonizazio planifikatua eta sistematikoa jasan dutenek, biolentzia-ahalmen askoz handiagoa zuten inperioen zigor politiko, sozial eta kulturala nozituz mendeetan morrontzazko harreman subsidiarioan bezatuak izan ondoren, arazo larriak dauzkate euren buruak definitzeko orduan.

Bere buruari izen bat eman dion herriak eduki ohi du kategoria berezi eta jaso bat, osotasun zentzua, munduaren aurrean nor izatearen harrotasun naturala. Horregatik, konkistatzaileak, lurraldea zatikatzearekin batera herrialde esklabotuaren izendegia aldatzeari ekingo dio, jentilizioak itzulipurdikatuz, esanahi garbiko izenak narrastuz eta ilunduz, herritarrek zeintzuk ziren ahantz dezaten, horrela hobeto asimilatuak izango baitira.

Izenak beti dakar nortasun baten oroimena, konkistatzaileari interesatzen ez zaiona. Nazioari sentimendu nazional propio bat emango dion botere-gunerik gabe, ez duzu oroitzen ahal nor zaren ere, ezin baitiozu deitu zeure

buruari izen propio batez, eta identitate ezaugarri arrotzak bereganatzeko prest dagoen piztia akritiko otzana bihurtuko zara.

1857an Madrilen onartu zen “Ley de Instrucción Pública” delakoak, lehen hezkuntza Espainia osoan derrigorrezko ezartzen zuenak, espainolez emana, noski, Rovigo dukeak esandakoa zuen oinarri: “*La propagación de la instrucción y de nuestra lengua es el medio más eficaz para que progrese nuestro dominio en el país vasco-navarro*”. Baina aurretik gauza asko gertatu ziren.

Hitzak ez dira tolesgabeak; botereak asmatzen, ezartzen eta zirkulazioan ipintzen ditu, hitzen ekoizpen-lantegien monopolioa berak daukalako: hedabideak, legeak, unibertsitateak, liburuak, historia-kronikak eta abar. Bere interesen arabera darabiltza hitzok, guk errealitatea haren begiekin ikus dezagun. Bere ikuspegi propioa garatzeko eta ezartzeko gauza ez den gizarteak konkistatzailearen ikuspegia bereganatuko du, guztiz bere interesen aurkakoa izango dena: bere burua erdeinatzen erakutsiko dio, konplexuz beterik sortuko dira belaunaldi berriak, eta logikaren aurka doan edozein teoria irentsiko du xalo-xalo.

Mendeetan garatu den imajinarioan euskaldunak arlote gisa agertu izan gara, nobleak baina astakiloak, lanerako egokiak baina ekimen gorenearako ezgauza; bertsolariak ginen, baserritar, folkloretik hurbilago bizitza modernotik baino. Espainol eta frantsesak, aldiz, presidentek izan dira, zientzialariak, literatoak, militar bikainak, musikariak, margolariak. Gaurko euskaldun batek bere herriko zenbat musikari edo margolari jakingo luke izendatzen?

José María Sánchez Carrión “Txepetx”ek bere *Lengua y Pueblo* liburuan dioenez, herrialde orok dauzka, gutxie-  
nez, bi izen: bere buruari ipini diona, bata, eta besteek eza-  
rri diotena, bigarrena. Eskimalek, adibidez, *Innuít* esaten  
diote euren buruari, “gizaki bikainak” esan nahi duena; *es-  
kimal* izena auzokide zituzten beste indio batzuek ezarria  
da, eta “haragia gordinik jaten dutenak” esan nahi du; ba-  
satitik hurbilago gizakitik baino, alegia. Ekuadorreko hua-  
oraniek *huao* esaten diote euren buruari, “pertsonea” esan  
nahi duena, baina auzo-tribuek, Kitxua eta Siona Sekoyek  
*auca* deitzen diete... ez da zaila esanahia asmatzea: “basa-  
tia”, baiki.

Euskaldunak, bere lurrian jabe eta hegemoniko ze-  
nean, izendegi autodefentsibo bat garatu zuen. Euskara zen  
hizkuntza nagusia, erresumaren jabeena, lurralde aski za-  
balean hedatua, botere gune propioak izateak beregain  
bilakatzen zuena munduaren aurrean. Euskara ez zekienak,  
kanpotik zetozen bidaiari edo salerosleen kasuan, *erdara*  
mintzo zuen, “erdi eran” alegia; harena ez zen hizkuntza  
osoa, erdipurdikakoa baizik, ez baitzen oso ongi ulertzen,  
ez zen hizkera integrala, gunekoa, bazterreko batzuek zeu-  
katen gabezia bat baizik, guk bezala ez hitz egiteko zori-  
gaitza.

Lehen izenaren nartzisismoarekin aldera liteke biga-  
rrenaren iseka-borondatea, baina alor guztietan gertatu  
ohi den legez, nork agintzen duen, hor dago koska. He-  
rrialde guztiak izan dira munduan etnozentrikoak, baina  
ez beti, eta halabeharrez, etnozidak. Sánchez Carriónek  
iradokitzen duenez, etnozentrismoa munduko herrialde  
guztien eraikuntza kulturalen ezaugarria da, eta salbues-  
penik gabe gertatu izan da. Kultur mota orok izan behar

du, bertan parte hartzen dutenentzat, jakintzaren ikuspegi nagusia, mundua ezagutzeko modurik gorena; hori da neurgailua beste kultur adierazpide auzoko edo atzerritar oro epaitzeko, eta logikaz hauek maila apalagokoak izanen dira guretik begiratuta.

Kultura guztietan “gu” eta “haien” arteko bereizketa funtsezkoa da, eta oinarrizkoa herri baten kontsentsua osatzeko orduan, ingelesek, finezia handiagoz, *home/abroad* deitzen dutena. Antzinatek izan du gizakiak mesfidantza naturala bera bezala mintzatu edo pentsatu ez dutenekiko, eta gizatalde bakoitzak ezarri ditu bere ideiak eta irizkiak kosmosaren erdian.

Lurralde batek bestea konkistatzen duenean, hegemonia linguistiko eta kognitibo hau suntsitzea du helburu, esplotazio bideak garbi gera daitezten. Hori da etnozentrismotik etnozidiora dagoen tartea, Joseba Ariznabarretak *Euskadi: aproximación política* liburuan zehazten duenez, ezinbesteko osagarri batek ireki zuena: Estatuaren sorruntzak. Herrialde primitiboak ez dira uniformetasun sortzaile izan, guztiz kontrara baizik: jakintza eta hizkuntza konplexutasuna hedatu zuten, era askotariko kultur adierazpideak sakabanatuz lurbira osoan, pluraltasun linguistikoa. Indar zentrifugoa zen haiena.

“Zibilizatu” izeneko lurraldeek indar zentripettoa izan dute, uniformizazioa bilatuz, hizkuntza batzuen nagusitasun biolentoa erakunde inperialisten indar armatuen laguntzaz, dagoeneko munduko hizkuntza txiki “desarmatuen” heriotza masiboa eragin duena. Herrialde primitibo haien eta guk nozitu ditugun nazio-estatu erraldoien arteko alde estatua bera da, bere absentzia behialako denboretan, bere presentzia guri menderatuak izatea egokitu zaigun mendeetan.

2013ko abuztuan San Adrianen aurkitu dituzten aztarnei buruzko erreportajeak etorri dira egunkarietan. Horietako batzuetan, inertziaz ala estilo liburuen aginduz, esaldi hau kokatu dute paraje horren historia laburbiltzerakoan: “XIII. mendean, Gipuzkoak Gaztelaren baitan geratzea erabaki zuenean...”. Horra liburu honetan zehaztuko ditugun 16 gezur garrantzitsuetako lehena, konkistatzailearen alfabetoko lehen araudia: menderatuari sinetsaraztea okupazioa gure arbasoen arteko hitzarmen bidez gauzatu zela, erabaki ona izan zela gure lurraldearentzat eta horri esker hobeto joan zaizkigula gauzak.

Gezur honek ez du atsedunik ezta 800 urtera ere. 2013ko udan *El País*en idatzi du Juan Claudio de Ramón diplomatikoak: “1200ean, Gipuzkoak bat egin zuen bere borondatez Gaztelako Koroarekin”.

Baina hara non, batere susmagarria ez den *El Diario Vascon* konkistaren bertsioari egiantzekotasuna ematen dioten, jadanik gezurra errepikatzen akitu balira bezala. *Arkeolaneko* hiru arkeologok 2011n aurkeztu zituzten ondorioen berri zekarren egunkariak, Arrasateko Santa Barbara muinoan kokaturik zegoen Goikobalu izeneko gazteluaz:

La presencia de otra fortaleza en Aitzorrotz, controlando la entrada desde Araba, y que fue sede la Tenencia General de Araba y Gipuzkoa del rey Sancho VI de Navarra, rey de Pamplona entre 1150 y 1194, se suma a otra serie de indicios que apuntan a una posible fundación navarra del castillo (...).

De ser así, el castillo de Santa Bárbara debió de ser en origen una fortaleza perteneciente al Reino de Navarra.

Este punto defensivo, al igual que todo el resto del actual territorio guipuzcoano, sería conquistado por Castilla en el año 1200.

Egunkari berean, Kepa Olidenek idatziko du 2013ko maiatzean, Arrasaten Tomas Urzainquik eman behar zuen hitzaldi bati buruz:

Este investigador sostiene que la historiografía que habla de una supuesta alianza entre Gipuzkoa y la corona castellana, basada en una incorporación voluntaria y pactada, no se ajusta a la realidad histórica.

La paternidad de esta versión es atribuida al mondragonés Esteban de Garibay (1533-1599), cronista del rey Felipe II. Como escribe el profesor de la UPV Jon Andoni Fernández de Larrea en La conquista castellana de Álava, Guipúzcoa y el Duranguesado (1199-1200), “es Garibay quien narra por primera vez cómo, al invadir (el rey de Castilla) Alfonso VIII Álava, los guipuzcoanos –ofendidos por desafueros desconocidos que les habría infligido el rey de Navarra– decidieron transferir su fidelidad al monarca castellano.

Halere, Gipuzkoako Batzar Nagusietan ez ziren erabat gustura egongo Gaztelarekiko mendekotasunarekin, edo gaur egun *errelatoa* deitu izan den horrekin, XVII. mendean donari bat eskaini baitzuten, Gaztelarekin izan omen zen hitzarmen haren agiri bat aurkezten zuenarentzat. Hemen sortzen da erreala baino literarioagoa dirudien istorioa, baina Urzainquik gertaera historikotzat frogatua daukana: Antonio de Nobis (“Lupián Zapata” ezizenez)

agertzen da eszenan, XVII. mendeko faltsutzailerik garrantzitsuenak, itxuraz eskatzen zuten agiriaren kopia batekin. Foru Erakundeak ez zuen benetakotzat onartu dokumentu hura.

Antonio de Nobis, ordea, existitu zen. Hala dio Espasa Calperen entziklopediak:

Antonio de Lupián Zapata o Lupián de Zapata o Antonio de Nobis (fallecido en Ibiza en junio de 1667) fue un clérigo y cronista español que vivió en el siglo XVII, conocido por ser falsificador de documentos empleados en distintas discusiones del período. Consta que entre las técnicas que empleaba para falsificar documentos estaba el someter pergaminos al calor de hornos de manera que así parecieran más viejos.

Gainera, gizon hau Felipe IV.aren erret kronista eta notario apostoliko gisa aurkezten zen, inongo dokumentutan ageri ez den informazioa. Honela bukatzen du entziklopediak berari buruzko soslaiak:

Su celebridad literaria la adquirió fingiendo documentos y cronicones, con los cuales falsificó la historia, por lo cual esta rama del saber humano padeció mucho con los trabajos de Zapata y de otros escritores como el padre Román de la Higuera.

Zazpi obra nagusi faltsutu zituen Antonio de Nobisek, gaur egunera iritsi zaizkigunak. Horien artean *Hautberti Hispalensis chronicon cum annotationibus*, *Martirologio de*



*San Gregorio Bético, eta, nola ez, Unión de la muy noble, leal y ilustre provincia de Guipuzcoa a las coronas de España”.*

Denak faltsuak.

Ez dago Gipuzkoak (Arabak, Bizkaiak) Gaztelarekin borondatez batu zela dioen hitzarmenaren dokumenturik, beraz hori baieztatzea gezurra esatea da. Badaude, aldiz, Gipuzkoan, Araban eta Durangaldean izandako konkista, setio, suntsiketa, gerla, konfiskatze, harrapaketa eta arpilatzeeen kronikak. Hortik abiatu behar du gure kontakizunak.

Sabino Aranaren akatsa izan zen bertsio faltsu horiei sinesgarritasuna ematea euskal aberriaren diseinua, definizioa eta historia egin zituenean, Jose Antonio Agirrek berak ere kritikatu zuen moduan.

Azken urteetan agertu diren dokumentuak dira gezur historiko honen froga garbiena, baina guri dagokigu iruzur intelektual honen aldarnioak desmuntatzen hastea. Osterantzean, hitzarmenaren ideiak jarraituko du gure artean biraka, akordioaren kultura hizkuntza espainolaren alde kokatuz, eta kontrakoa, inposizioarena euskararen esparru semantikora lerratuz. Aspaldi gaztigatu gintuen Agirre lehendakariak, “kronista hispanikoen espiritua” jarraitzearen aurka, zeinak, kasu askotan, dokumentazio hutsunea baliatu duten euren bertsioa hedatzeko, era berean inongo dokumentutan oinarritu gabeko historia kontatuz.

Euskararentzako esparruak irabaztea aurka dagoenari argumentuak kentzea ere bada. Hizkuntza guztien gaurko egoera mende askotako prozesu historikoen emaitza da. Hor aurkitzen da gaurko ezintasun, arazo, noraez eta burujan txepelen sustraia. Prozesu horiek ezagutzea eta ulertzea mapa batean koordenada-guneak ezartzea bezala da,

bide-orri ezinbestekoa era guztietako konplexu eta gaizkiulertuen itsasoan ez galtzeko.

“Gaztelera” hitzaren erabilera bera, gure artean erabat errotua dagoena, hitzarmen baten iradokitzaile bikaina da: anaikidetasun bat adierazten du, geure onbeharrez hartu genuena, nola ez genuen bada hartuko, espainiar inperioa bere konkistak hedatuz zihoan heinean munduko hainbat lekutara bidaiatzea posible egiten zuen eta! Psikoanalisi kolektibo baten beharrean dago gure herria, analisi ahalmena ilundu eta desitxuratu dion mendekotasun lazgarriaren ondorioz, eta hau izan behar luke subkontzientean lehen garbiketa: inposatutakoari “gaztelera” deitze-ari utzi, eta “espainola” deitzen hastea; horrela adieraziko genuke, oso modu osasungarrian, ez dela gurea hizkuntza hori, alemana edo frantsesa ez diren bezala. Gero bat edo beste ikastea erabakiko dugu, baina garbi jakinda gurea ez den estatu batekoak direla denak.

Italiera ere, berez, toskanera da, baina inork ez du toskanera esaten.

Datu historikoez at, holako kasu baten aurrean aski da “aldebikotasunaren” froga egitea, galdetuz: ea, akordio bat egon bazen, bi aldeek emango zizkioten elkarri euren gauzarik onenak, ezta? Hizkuntza, adibidez. Euskaldunok Gaztelako hizkuntza ikasi bagenuen, haiek ez al zuten ikasi euskara, Nafarroako erresumako hizkuntza? Bada, ez. Beraz, ez zen hartu-emanan izan, zapalkuntza harremana baizik: batek besteari hizkuntza inposatu zionekoa. Herriek ez diote uko egiten beren hizkuntzari borondatez, beste hizkuntza ederragoa delakoan, jasoagoa. Etnozentrisismoak ez du posible egiten ahal halakorik; bai, ordea, etnozidioak.

Etnozentrismoa herri batek bere burua modu kolektiboan maitatzea baita; ez da inposatzailea, auto-ohorezlea baizik. Etnozidioa, aldiz, zeure hizkuntza beste herri bati inposatzea da, harena ahulduz eta desagerraraziz, mende askotako lanaren ondoren herri hori bere burua gorrotatzera eramango duen prozesu mingarria. Hizkuntza propioa maitatetik hizkuntza hori gorrotatzera dagoen bidea da munduko prozesu linguistiko askoren historia, euskaldunona tarteko. Prozesu horren uneren batean sortu zen Euskal Herrian gezur traza duen iruzur bat, gerora aztertuko duguna: bi hizkuntzak, gaztelera eta euskara, edo hiru, frantsesa ahaztu nahi ez badugu, hemengoak direla.

Gezurren artean igeri egiten ohituta ere, ez genituzke inoiz Jimeno Jurioren hitzak ahaztu behar:

Memoria historikorik gabeko herri bat, informaziorik gabea, bere baloreak eta identitatea ezagutzen ez dituen kolonizatua izateko prest dagoen soroa da. (...) Bere iragana, bere nortasunaren ezaugarri funtsezkoak ezagutzen ez dituen herria txotxongilo bat izango da, edonork nahierara erabili ahalko duena.

## ‘ABADDON’ EUSKALDUNA

Mendeetan gure etsaiek izen ezberdinak eman dizkigute, beti ere kontrolatzen zuten lurraldearen arabera eta euren interesak indartzeko asmotan. Hala dio Aitzol Altunak “Historia de los diferentes nombres dados al Pueblo Vasco” ikerketan.

Kristo aurreko 77. urtean idazten da lehendabizikoz “vasco” hitza, Tito Liviok idatzi zuen pasarte labur batean, XCI atalari dagokiona. Bertan, aurreko urtean Quinto Sertorio militarrek hasi zuen kanpaina kontatzen du, esanez Ebro ibaia eta *Calagurris Nasica* hiria (civitas) zeharkatu ondoren, baskoiak bizi diren lurralde laua aurkitzen dela, *Vasconum Agrum* delakoa. Horra, baita ere, euskaraz idatzitako lehen toponimoa, “calagurris” (kala+gorri), gaurko Calahorra.

Julio Zesarren “Bello Galico” testuan agertzen da lehen aldiz, *auscos* hitza. Estrabon geografo grekoak Augusto enperadorearen garaian (K. aurreko 63tik ondorengo 14ra bitartean) *ouáskones* deituko die euskaldunei, eta Varron historialariak, Kristo aurreko 50ean, *uascos*. Zalantzarik ez da *uasco*, *ouasco*, *vasco* edo *ausko* jatorri bereko hitzak direla. Erromako Inperioa desagertu ondoren, euskaldunak *uasko* edo *vasco* horren jentilizioaz deituak izango gara, *baskoiak*, hori da herri gisa jaso genuen lehen deitura, batzen gaituen egitura politikoa identifikatuko duena, Baskonia.

Asturiasko Alfontso III.na (866-909) erregearen testuetan agertzen dira lehendabizikoz Araba eta Bizkaia, “Alabanque” eta “Bizcai” idatzita. Gipuzkoa, berriz, “Ipuzkoa” gisa agertzen da Iruñea-Nafarroako Erresumaren parte bezala 1025ean, Antso III.na Nagusiaren erregeztan.

Kronikagile frankoek 769. urtean darabilte estreina-koz “navarro” hitza, haien kontrolpetik aske, independente jarraitzen duten euskaldunak izendatzeko. Euskal men-deratuen eta askeen arteko ezberdintasun linguistiko honek iraungo du historia osoan. 778an garaiko armadarik

indartsuenari sekulako jipoia emango diote euskaldunek Orreagan. Egitura militar arina zuten, baina beteranoak ziren gerraren lantegietan, ez zen bat-bateko eraso amorratua izan, datuek garbi erakusten dutenez: Karlomagno enperadorea 20.000 soldadurekin igaro zen Ibañetako lepotik, eta bertan geratu ziren odoletan haietako milaka, Karlomagnoaren iloba ospetsua zen Erroldan dukearekin batera. Inprobisatua izateko zigor handiegia dirudi, han bazegoen herri bat, antolatua, egituratua, lur-maitea eta gutxieneko batasun baten jabe, kronikagileek hori desitxuratu nahi izan badute ere.

824an leku berean garaituko dute berriro euskaldunek frankoen armada, oraingoan Pipinio, Karlomagnoaren biloba buru zutela. Diotenez Eneko Aritzak erakutsi zuen balentriagatik izendatu zuten Iruñeko erresumaren lehen errege.

Antso VI.na Jakintsuak (1150-1194) darabil lehen-dabizikoz “Nafarroako Erresuma” adiera, eta jadanik ez dago osatzen duten lurraldeak banan-banan aipatu beharrik. “Nafarroa” esanda aski da, nazioartean ezagun bihurtuko da definizioa, eta garaiko osterantzeko erresumen agiri ofizial guztietan agertzen da horrela. Euskal lurraldeen independentzia ezagutua da nazioartean, legitimoa da.

“Euskara” hitza XI. mendean ageri da lehen aldiz, Al-Uidrí geografo musulmanaren testu batean. Bertan 797ko istorio bat kontatzen du, nola euskal jatorriko buruzagi arabiar batek Huesca hiri euskalduna askatu zuen. Buruzagi horren izena: Bahlul ibn Marzuq ibn Uskara da; “uskara” euskarari esaten zaio Erronkariko euskalkian. Cañada Juste ikerlariak planteatzen du Marzuq delako hau Uskara deituriko baskoi baten semea izan zitekeela, eta

Txomin Peillenek dio, *Fontes Linguae Vasconum* aldizkariko 70. alean Uskara ez dela hitz arabiarra ezta bereber leinukoa ere, indigena baizik, garai hartan ziurrenik *euskaldun* esan nahi zuena.

Huescan euskara mintzatu zatekeen gutxienez XIV. mendera arte. 1349an, adibidez, udal-ordenantza bat argitaratu zen, saltzaileei salerosketak euskaraz egitea debekatuz. Honela dio erromantze zaharrea:

Item muyl corredor nonsia usado que faga mercaderia ninguna que compre nin venda entre ningunas personas, faulando en algarabía ni en abraych nin en basquenç; et qui lo fara pague por coto XXX sol.

Testuan irakur daitekeen “algarabia” hori arabiera da, eta “abraych” hebreera. Beraz, hiru hizkuntza debekatuak kolpe batez, islamaren hizkuntza, hebrearrena, eta euskal paganoena. Latina eta bere ondorengo erromantzeak kristautasunaren hizkuntzak baitziren. Haiek hedatuz, hedatuko zen kristautasuna. Helburu bikoitza izan zuen debeku honek, erlijiosoa eta politikoa, Aragoiko Erresuma finkatzen eta hegoaldera hedatzen zihoan heinean bere hizkuntza ezartzeko.

Garai hartan Aragoi iparraldeko biztanleak euskal hiztunak ziren erabat, eta euskaraz eginez ematen zitzairen salerosketei legezko izaera ukaezin bat. Isuna ere ezarri zen euskaraz egiten zuenarentzat: Aragoiko 30 urrezko txanpon. Huescako Artxibategi Historikoan ageri denez, hiru mendez egon zen indarrean debekua; horrek erakusten du zeinen sustrai sakonak eta zelako hiztun multzo handia zituena euskal komunitateak Aragoi. XVII. mendekoa da

azken debeku ofiziala; hortik aurrera, ez da ezer debekaturik egongo. Galdua zen euskal hiztunen espezia Aragoi osoan.

Horra ezaguna dugun lehen debekua euskararen aurka. Garaiz hasi ziren gero: duela 665 urte. Norbaiti enbarazu egiten zion hizkuntza xume batek duela 665 urte. Gaur euskara arbuiatu, gorrotatu eta laidotzen dutenen aitaponteko bat izan zen duela 665 urte. Norbaitek isilarazi nahi zuen euskara plaza publikoan duela 665 urte. Zer ote dauka hizkuntza gureak? Zer kalte eginen ote zuten hura mintzatuz?

Zergatik debekua? Hizkuntzaren bidez nortasun propioaren definizioa garatzeko eta identitate arrotzaren marjinazioa sustatzeko, fragmentazio sozialaren abiapuntu, hizkuntza dotore eta zarpailen arteko lehen bereizkuntza, nagusitasun ekonomikoaren talaiatik egina; hiritarren erdeinua mendiko artzain eta laborarien hizkuntzari. Edo, agian, bazen erlijioarekin lotutako sineskeriarik ere: latinaren sustrai sakratuetatik sortutako hizkuntza erromanitzeek iraingarritzat zeukaketen kristautasunaren aurrekoa zen hizkuntza paganoa, uniformitate linguistikoaren oztopotzat, arau orokorretik ateratzen zena eta ulergaitz zitzaiena, kolektibitate baten klabeak gordetzen zituen hizkuntza sekretua bailitzan.

1349an idatzi zen gerora Gandiagak hain ezagun egingo zuen poemaren lehen bertsioa:

Hizkuntza bat ez da galtzen  
ez dakitenek ikasten ez dutelako (baita ere),  
dakitenei hitz egitea  
debekatzeko zaielako baizik.